

BERRIGARA

92. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, urtarrilak 22

EPELEN
HASI DIRA
ARZUBI ETA
KANPAZAR
LOTUKO DITUEN
ERREPIDEA
EGITEN

SAN
PAULO
JAIK UBERA
AUZOAN
ASTEBUKAERAN

KIROLAK

JOSE
IGNACIO
OYARZABAL
SASKIBALOI
SAILEKO
ZUZENDARI
TEKNIKOAREKIN
BERRIKETAN



LANBIDE HEZIKETA
ESKOLA BERRIA BI URTE
BARRU PREST



2 x 1

ESKA EZAZU DOBLEA!!

KIÑU

GRUPO
Image Center

FOTO-BIDEOA

Barrenkale, 35 BERGARA ☎ 76 58 05

1993rako ESKAINTZA

MANTENIMENDUA



DANZA



GIAR LANA



"SQUASH"-A



AKTIBITATE DENAK, GUZTIRA:

helduak: 4.500 pzta.


haurrak: 3.000 pzta

Urte guztia: 37.000 pzta.

KARATEA



GIMNASIOA



"AEROBIC"-A



INSKRIPZIOA:

helduak: 5.000 pzta.

haurrak: 3.500 pzta.

prezioa hauek BEZ gabe dira

BALLETA




BOXEOA



**Arane Erreka
BERGARA**

B · O · L · T · S · A · K

HIDROMASAJEA



TABERNA

PRESAUNA
SAUNA

ESTETIKA

Informazio gehiago:

☎ 76 51 20

ADI!! URTARRILA ETA OTSAILEAN EZ DUGU INSKRIPZIORIK KOB RATZEN

Biltoki

BETI ZURE ZERBITZURA!



xey

SUKALDE ETA BAINURAKO
ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE
HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G
☎ 76 34 00

PHILIPS


TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN
BIDEOAK, HI-FI MATCH-LINE
EKIPOAK, 100 HERTZIOTAKO
DIGITAL SCAM TB-K

BARRENKALE, 6
☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO
ALTZARIAK, ALFOMBRAK,
LARRUZKO SOFAK,
DEKORAZIORAKO
OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2
☎ 76 43 51



BERGARA BOLTSAK

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoko konfekzio industrialia
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaltz 1,


Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

BERRIGARA

Argitaratzailea:
Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97
Babeslea: Bergarako Udala
Laguntzailea:
Eusko Jaurlaritzza
Erredakzioa
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkoroberezibar
Maketazioa:
Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil
Publizitatea eta harpidetzak:
Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97
Erredakzio-kontseilua: Ifaki
Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaian
Kolaboratzaileak: Jose Angel
Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkoroberezibar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi, M.
Elkoroberezibar, Aitziber
Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.
Sorondo.
Argazki laborategia:
B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
Kiñu eta Pol-Pol Mendizale
Taldea.
Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga
Inprimategia:
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)
Banaketa: Txantxangorri Taldea
Copyright:
BERRIGARA
Tirada: 3.300 ale
Lege gordailua: SS 50/ 91
ISSN: 1130-6599
BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.




Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

J. M. ZEZEAGA

Jose Mari Zezeagak asteazken arratsaldean Berrigarari aurreratu zionez aurtengo eskuz banakako pelota txapelketan parte hartuko du.



Astelehenean amaituko da txapelketarako izena emateko epea eta Jose Mariren izena ez da faltako. Bere esanetan, "neure burua ondo ikusten dut baina eskuz banakako txapelketan edozer gauza gerta daiteke, binaka jokatzearekin konparatuz guztiz diferentea baita".

Jose Marik baditu bere favoritoak: "Ladis Galarzak finalean

egoteko eskubidea du eta bera izango da favorito nagusia. Gero, ba, betikoak; Arretxe, Retegi... eta Beloki ere bai, urrun heldu daiteke naparra. Abalik eta partidu gehien irabazi eta paper ona burutzea, besterik ez dut eskatzen".

Eskuz banakako txapelketan parte hartuko du

ITURRI ONETIK

Frontoiaren egoera aztergai

Bergarako Udalak Anselmo Iñurrategi arkitektoari Jaurlaritzako Barne Saileko Joku eta Ikuskizunen Departamentuaren arabera Udala Pelotalekuak dituen akatsak aztertzeko eskatu dio. Kontzertuak edota jaialdiak bertan egiteko Barne Sailari aurrez baimena eskatu behar zaio (ez pelota partiduen kasuan) eta ez dira hainbat neurri betetzen. Premiak eta aurrekontua aztertu ondoren, erabaki bat hartuko da, obrak ziurtzat ematen badira ere.

ESAN DUTE

"Zezeagak eskuz banakako profesional mailako txapelketan parte hartuko duela enteratu naiz eta benetan pozten naiz Bergarako pelotari haundiak hartu duen erabakiarengatik".

JOSE MARIA MADINABEITIA
Zezeagaren jarraitzailea
EGIN

"PSOErekin bat egin dugun EEko kideek ez ditugu onartu PSOEren nazionalismoaren kontrako tesiak. Guztiz kontrakoa egin dugula esango nuke, hain zuzen ere, Euskadiren autonomiaren alde lan egin nahi dugulako, gizaki guztiak, bai espainiarrak, euskaldunak zein europearrak, errespetatuz".

ALVARO ESPARZA
EEko zinegotzia
EL DIARIO VASCO

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

MAKAILO
Makailau **ETXEA**
kazuelak gertatzen ditugu
Ibargarai 15

ELEKTRO
ARENAZA C.B.
Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.
San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43



LA SOMBRA DEL LOBO

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00., 19.30 eta 22.30.
Igandea: 17.00., 19.30. eta 22.15.
Astlehena: 19.30.



¡ALTO! O MI MADRE DISPARA

Igandea: 11.30.



RESPLANDOR EN LA OSCURIDAD

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Filme ekolojista hau Ipar Artikoko espazio naturaleran errodatu zen eta bertan Inuit etnia eta gizon zuriaren arteko diferentziak azaltzen zaizkigu. Kanadan azken 20 urteotan egin den produkzio garrantzitsuenak 35 milioi dolar kostatu du eta **Toshiro Mifune, Donald Sutherland** edota **Lou Diamond Philips** ezagunak agertzen dira.

▼▼ *Joe Bomowski* (**Sylvester Stallone**) detektibearen ama (**Estelle Getty**) nahiko xelebrea da. Semearen etxea txukundu eta hiria ere "garbitu" nahiko du. Hobe *Rocky* etxean geratuko balitz, bere ama ondo baino hobeto konpontzen da eta.

▼▼ 1.940. urteko Berlinen kokatutako espioitza filme honek **Melanie Griffith** eta **Michael Douglas** ezagunak ditu erreparto buruan. Lindak Berlinen izango duen betebeharrak gerraren ... eta bere bizitzaren norabidea erabaki dezake.

Erakusketak

▼ **Beira-lanketari** buruzko ikastaroan parte hartu dutenen lanak Kultur Etxean ikusgai igandera arte, hilak 24.

▼ **Jose Antonio Borobia** margolariaren 12 koadro ikusgai Nahikari tabernan.

▼ **Argazki erakusketak.** Javier Areitio eta Pedro Martin argazkilariek Bergarako kultur eta kirol taldeei 1992an ateratako erretratuak erakusten dituzte Kultur Etxean asteazkenetik aurrera.

Farmaziak

- ▼ **Larunbata 23:** Camacho/Morales (Arrasaten, gauez)
- ▼ **Igandea 24:** Camacho/Azkoaga.
- ▼ **Astlehena 25:** Puy/Español.
- ▼ **Asteartea 26:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Asteazkena 27:** Guallar/Irizar.
- ▼ **Osteguna 28:** Mozos/Amezua.
- ▼ **Ostirala 29:** Camacho/Morales.

Ogia

▼ **Igandea 24:** Bolintxo.

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motoren bobinaketa
 - ✓ Era guzietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE

Ikuskizunak

▼ **Antzerkia.** Uberako haurrek antzerki saioa eskeiniko dute larunbatean 14.00etan Uberako frontoian.

▼ **Mendiko Bizikleten lasterketa.** Uberako zelaietan larunbatean arratsaldeko 15.30etan.

Kirolak

▼ Futbola:

• *Bergara-Tolosa* (2. mailako erregionala). **Larunbatean** 15.45etan Agorrosinen.

• *Bergara-Mundaiz* (Lehen mailako jubenila). **Larunbatean** 10.30etan Ipintzan.

• *Bergara-Lazkao* (Lehen mailako kadetea). **Larunbatean** 12.30etan Ipintzan.

• *Bergara-Aloña Mendi* (Infantil Txiki maila). **Igandean** 10.00etan Ipintzan.

▼ Saskibaloia:

• *Bergara-Hondarribia* (senior mailako emakumezkoak). **Larunbatean** 20.30etan.


• *Bergara-Almen* (Kadete

Aukeran

▼▼ Nagusien Pelota

Txapelketako finalak jokatu dira igandean Uberako frontoian.

Lehendabiziko partiduan Aldai eta Cesarrek, Agirre eta Olasoren aurka jokatu dute 3. eta 4. postuetarako eta Samaniego I.a eta II.ak, Agiriano eta Osaren kontra jokatu dute txapeldunak erabakitzeko partiduan.



mailako gizonezkoak). **Igandean** 10.30etan.

• *Bergara-Urmek ikastola* (Jubenil mailako gizonezkoak). **Igandean** 12.15etan.

• *Bergara-STL Enbeita* (Jubenil mailako emakumezkoak). **Igandean** 12.15etan.

▼ Eskubaloia:

• *Bergara-Urnieta* (kadete mailako mutilak), **larunbatean** 16.00etan.

• *Bergara-Urnieta* (Jubenil mailako mutilak), **larunbatean** 17.15etan.

• *Bergara-Urnieta* (Senior mailako mutilak), **larunbatean** 18.30etan.

▼ Futbitoa:

• **Astebukaeren** Kiroldegian.

5

PROFESIONALAK

• Soroa III.a-Andueza V / Ansotegi-Alberdi III.a

• Laduche-Aldazabal II.a / Etxaniz-Armendariz

• Gabilondo-Buenetxea / Kalonje-Garaita

Larunbatean,
16.00etan Udal
Pelotalekuan.

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

LXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

Artekale, 15
behea.
BERGARA
☎ 76 58 86

- SUKALDEA
- ORMA-ARMAIRUAK
- NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK
- ATEAK-LEHIOAK

Alirote, alirote

Kaixo lagunak eta ez zaretenoi ere bai:

Udaletxearen eta komunikabide batzuren jarrera zein izan den ikusita, urtarillaren 5ean egin zen kalejirari buruzko lerro batzu idaztera ausartu naiz.

Lehenengoz komunikabide batzuri zuzenduko naiz: salatzekoa da eta salatu egiten dut BERRIGARA eta EL DIARIO VASCOK kalejira honi buruz eduki duten jarrera.

Sekula ez da ikusi Bergaran horrelako mobilizapenik, eta horrenbeste zurrumuru eta komentario sortu dituen arren, BERRIGARA astekariak ez du ezer kaleratu. Izango da hori bezalako notiziak dozenaka dituzuela eta ezin dituzuela denak kaleratu?

Bestalde, EL DIARIO VASCOK Bergaran duen korrensponsalari buruz, esatea, mobida honi buruz ezertaz ez dela enteratu eta ez dakit oraindik enteratu den. Jakitea dauka herriko hainbat gaztek antolatutako kalejiran 350 bat pertsonak parte hartu genuela, herriko mugimendu sozialekiko udaletxearen jarrera salatuz.

Batzordearen eskutitzari buruz komentatzen hasi baino lehen, Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordeak nortzuk diren jakitea gustatuko litzaidake, gazteriarentzako aktibitateak ez baitituzte antolatzen.

Eta ez ipini bilerak egiten dituzuela aitzakizat, gazteoi ez badiguzue ezer

eskaintzen bilera horietara joateko.

1. Umeen ilusioari buruz hitzegiten duzue, baina gazteok ez al dugu ilusio haundiz lan egiten urte osoan zehar gero zuek gehienetan debekatzen dituzuen ekintzak prestatzen?

2. Nik dakidanez aurrez erabakitako bakarra, nahi zuten taldeek bere problematika pankartetan agertzea zen eta agian pankartetan ipintzen zuena ikusirik gazte batzuek utzi egingo zuten kalejira.

Baina esaten ez duzuen da zenbat gaztek, Udaletxearen jarrera ikusirik, erabaki zuten kabalgatan parte ez hartzea eta kalejiran parte hartzea.

3. Iharduera kultural guztiak bultzatzen dituzuela? Orduan zergatik debekatzen dituzue gaztetxearen aktibitateak?, antzerkiak egin edo mahaiak plazan ipintzea?, zenbait taldek Kultur Etxea erabiltzea?, txoznetan aktibitateak egitea?, zergatik nahi duzue txapa Irratia itxi?

4. Nork ordaindu behar ditu txoznak ixteagatik sortarazi diren galerak?

5. Mural eta karteletan buruz, nola nahi duzue adierazpen askatasunik ez dagoen herri batean talde bakoitzak bere ideiak kaleratzea?

Batzuei honexegatik multa jartzen diezuen bitartean beste batzuri muralak egiteko baimena ematen diezue.

6. Gaztetxeari buruz, noiz hasi behar da tema hau serixo tratatzen eta gazte txeko asanbladarekin mahai batean eseri eta hitzegiten?

Bukatzeko kalejiran parte hartu gunden guztiak zoriondu egin behar mobi-

dagatik eta ea udaletxean enteratzen diren herri honetan kolektiboak hilik ez daudela eta gazteok herrian oraindik gauza asko egin dezakegula.

A. G.

N. A. N.: 15. 391. 355

Oker baten zuzenketa

Joan den asteko Berrigararen, "Eskulanak: pazientzia eta irudimena batzen direnean" izenburuko erreportaian (12 eta 13 orrialdeak), akats bat izan genuen. "HIESarentzako makilak" titulotxoaren azpian adierazten zena ez zen Jabier Otxoari buruzkoa, Jose Luis Leteri buruzkoa baizik. Jose Luis Letek egiten ditu makilak eta ez Jabier Otxoak.

Okerra argituta, gure barkamenak artista biei, gauzak diren moduan ez jartzeagatik.

Tiira ba!



Josu Okina

Maria Blanca Ruiz de Eguino hil

Maria Blanca Ruiz de Eguino Lazpiur, Victoriano Gallastegi alkatearen emaztea, astelehenean hil zen 50 urte zituela gaixotasun larri batek jota. Asteartean hileta elizkizunak izan ziren San Pedro elizan, Udal Korporazioaren presentzia eta Udal Musika Bandak eta Bergarako Orfeoia lagunduta. Bestek beste, Joseba Egibar EAJko bozeramalea, Antxon Arbulu Gipuzkoako Arkitekturen Diputatua, Roman Sodupe Gipuzkoako Garraio Diputatua eta Jon Esnal izan ziren San Pedron. Lerro hauetatik gure doluminak adierazi nahi dizkiogu Victoriano Gallastegi alkateari, eta beren seme-alaba eta familia osoari. Goian bego.

Epele eta Kanpazar arteko errepidea datorren urterako prest

Orain gutxi hasi dira Elorregi auzoko Arzubi baserriatik (Bergarako azkena Arrasatera bidean) Kanpazarrera bailaratik joango den bidea egiteko lanak. Mariezkurrena nappar enpresak burutuko ditu lan hauek datozen 13 hilabeteotan eta guztira 1.300 milioi pta. inguruko aurrekontua izango dute.

Dagoeneko Diputazioak Arzubi eta Zeleta baserrien jabeen otsailaren 18rako baserriak libre uzteko eskakizuna egin die eta Zeletan jadanik ez da inor bizi, Arzubikoek hemendik lasterrera joango direlarik.

Lan hauek Beasain eta Durango artean egin beharreko korredorearen barne kokatzen dira. Hurrengo fasean Arrasate eta Bergara lotuko dituen autobia (20 m. zabalera)koa Musakola eta San An-



Arzubi baserriaren inguruan eskabadorek lanean dihardute.

tonio artean) eta Bergara eta Zumarragaren arteko bidea hobetzeko egitasmoa dago, baina badirudi lan hauek atzerapenaz, eta beti ere Diputazioaren aurrekontuaren arabera hasiko direla. Dena dela, Gipuzkoan egin beharreko obrak 1996rako amaitzea aurreikusten da proiektuan.

Arzubitik Kanpazarreraino joango den bidea Epele errekatik igo eta Kanpazarren Sara baserriarekin bat egingo du, lau kilometro inguruko bidea izango delarik. Obrek irauten duten bitartean (13 hilabete inguru) Mariezkurrena enpresako 70 bat langile Sara baserrian egokituko dira.

Lokala uztearen kontra

Aste honetan zehar hainbat ekitaldi antolatu dira Bergarako Gaztetxean, azken honek eta Parrokiak lokalaren jabegoaren inguruan mantentzen duten auziaren kontra protesta egiteko. Gazteek ez dute inola ere lokala utzi nahi eta ahal duten guztia egingo dute bertan jarraitzeko. Horrela, presio egiteko, azkenean kontzertu bat izen gabeko talde batek kontzertu bat eman zuen. Ostegunean, berriz,

Gorka Hernaezek Estatu Batuetan ateratako eskalada diapositibak erakutsi zituen eta ondoren, 9etan, afari herrikoia izan zen Gaztetxean bertan.



TELKAR

PHILLIPS

SONY

ZERBITZU TEKNIKOA

IBARGARAI, 2 ☎ 76 27 11
BERGARA

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

IGARZA

MERZERIA

LENZERIA

D. IRALA 5
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

□ **Jubilatuak**

Estatu osoan dituen balnearioetan 15 eguneko egonaldiak igarotzeko Inersioak 60 urte baino gehiagoko pentsionistei edota bere emazte/senarrei zuzendutako termalismo programa jarri du martxan. Izena emateko epea astelehenean, hilak 25, amaituko da eta informazio gehiago nahi izanez gero Jubilatuetara jo edota 76 21 40 telefono zenbakira deitu dezakezue.

□ **Etxebizitzak**

Etxebizitza sozialen zozketa datorren ostegunean, hilak 28, arratsaldeko 6 1/2 erdietan egingo da Zabalotegiko dorrepeko aretoan. Gogoratu 63 etxebizitza zozketatuko direla eta guztira 265 eskakizun jaso direla. Zozketa publikoa da eta edozein interesatuk joaterik izango du.



San Pauloak Uberan

Ostiraletik, hilak 22, asteartera arte San Paulo jaiak ospatuko dira Uberan. Ostiraletan arratsaldeko 8 1/2 erdietan auzokoentzako afaria eta ondoren erromeria izango da. Larunbatean, arratsaldeko ordubietan auzoko haurrek eskeinitako antzerkia eta 3 1/2 erdietan Lokatza Ziklismo Eskolaren laguntzaz antolatutako II. Mendi Bizikleta Txapelketa jokatu da (federatuek bakarrik parte hartu ahal izango dute).

Igandean, berriz, Meza Nagusia 11etan eta 12etan Nagusien Pelota Txapel-

ketako finalak. Lehendabiziko partiduan Aldai eta Cesarrek Agirre eta Olausoren aurka jokatu dute 3. eta 4. postuetarako eta txapelketa erabakitzeko Samaniego I.a eta II.a eta Agiriano eta Osa bikoteak izango dira aurrez aurre. Astelehenean, San Paulo egunean, Meza Nagusia 11etan eta gaueko 9 1/2 erdietan diapositiba eta bideo emanaldiak Jaolatza elkartearen eta bukatzeko, asteartean San Paulo Txiki eguna ospatuko da: Meza Nagusia 11etan eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dira.

□ **UNED**

Bergarako UNEDeko Geografia eta Historia Departamentuak "Inguruarekiko inpaktu ikasketak eta informazio geografikoaren sistemak" ikastaroa antolatu du otsailaren 6tik apirilaren 24a bitartean. UNEDek parte hartzaileei diploma bana emango die. Matrikula UNEDeko ikasleentzat 20.000 pta.koa izango da eta gainontzekoek 25.000 ordaindu beharko dute. Izena emateko epea otsailaren 1ean bukatuko da.

□ **Argazkiak**

Javier Areitio eta Pedro Martin bergarar argazkilariek herrian diren kultur eta kirol taldeei buruz prestatu duten argazki erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxeko erakusgelan urtarrilaren 26tik otsailaren 7ra bitartean.



**LASA
JATETXEA**

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

**EGUREN
GESTORIA**


Maria Pilar Eguren Diez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta enparantza 3, behea.
☎ 76 21 65 / 76 24 45

**MINER Ardo onak,
ardoaak jakina**

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

**KAILASH
ZENTRO ESOTERIKOA**

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean
diplomaturako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)



Zabor bilketa zaintzen

Deba Garaiko Mankomunitateak hondakin-bilketarako zerbitzuak egoki erabiltzeko gida kaleratu du. Ingurugiroa zaintzearen kontzientzia-zioa pizteko asmoz, jarraitu beharreko hainbat gomendio ematen zaizkigu bertan, etxeetako zaborren bilketa, hondakin handiena edota beira, paper, kartoi eta pilen bilketari buruzkoak.

Hondakin handien bilketa hileko zerbitzua dugu eta hileko 2. asteartean egingo da Bergaran (jai egun bada hurrengo egunean) arratsaldeko 8etatik aurrera. Zerbitzu

honek bilketa-zerbitzu arruntak onartu ezinako etxeetako hondakinak jasoko ditu (altzariak, elektratresnak..., etab). Beira bilketari dagokionez, gaur egun 86 gune dira Elkarteko zortzi herrietan eta 7,6 k. berreskuratu dira biztanle/urteko (urrun oraindik hasieran kalkulaturako 24 k. bizt/urt.). Paper eta kartoiak biltzeko kontenedoreetan bildutakoarekin ere paper birziklatua egin daiteke eta pilak biltzeko kutxa bat ere jarri da, edozein lekutan utzita ura, lurra eta izaki bizidunak kutsatzen dituztelako.

Txinpartak

✓ **Pin-ball** (petakoak) txapelketa jokatu da datorren ostegunean, hilak 28, arratsaldeko 8etan Oilagorra tabernan. Izen-ematea dohan izango da eta irabazleak billar tako bat jasoko du.

✓ **Eguzkik** datorren igandean, hilak 24, "Nuklearririk ez inon ez inoiz" lemapean Lemoizera burutuko den martxan parte hartzeko dei egiten du. Irteera goizeko 11etan izango da Plentziako astillerotik.

✓ **Eguzkik** ere larunbatean, hilak 23, Oiartzungo Madalensoro pelotalekuan gaueko 10 t'erdietan izango den bertso-saiora joateko eskatzen du. Besteak beste, Jon Sarasua, Jon Lopategi edota Andoni Egañak parte hartuko dute.

✓ **Antzuolako** IDOLAZ taldeak antolatu duen adin mugarik gabeko bertso paper lehiaketarako lanak aurkezteko epea urtarrilaren 29an itxiko da.

✓ **Jose Luis Feo** Pol-Pol Argazki Taldeko kideak bigarren saria jaso zuen Arrasateko "santo Tomas Eguna" argazki lehiaketan.

✓ **San Bixenti** jaiak ospatuko dira igandean, hilak 24, Angiozarko Parteitti auzoan. Meza izango da 12etan eta ondoren *luncha* eta dantzaldia bildutako guztientzat.

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

AR DATZA
Brikolaketak

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

SUBiJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

ederJU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

Esate baterako, batzuek, mirabeak mespretxuzko iduritzat zeuzkaten. Oste-
ra, ezagutu ditugu hainbat kasu,
urteak kriadu eginik gero, familia
batekoak balira legez, ezagutu
direnak. Are gehiago, etxeko
alaba, kanpotik etorritako kri-
aduarekin eskontzea ere, gertatu
izan da; edo, kriadu-kriadak, ba-
serrira eskontzea, etxeko familiak
jarraitzailerik ez zeukalako.

Ikus dezagun, gertakizun ba-
ten bidez, nolakoa izan zitekeen
orduko kriadutza.

Osintxu bailarako gazte batek,
honela hitz egin zion bere aitari,
hamar urte betetzerakoan:

"kriadu lekua, neuk bilatuko
dut. Zuk, ez aipatu inortxori". Ai-
tarentzat, ustekabeko hitzak ba-
ziren ere, ontzat hartu zion eska-
bidea.

Mutil gazteak, Elosu auzoa
zuen maite. Han ikusten zituen
baserri zabal eta itxura onekoak.
Lanerako ez zuen higuinik, baina
goserik pasa gabe nahi zuen bizi.
Zer gutxiago eska zezakeen!

Berak aukeratutako baserrira
heldu zen egun batean, eta berta-
ko nagusiari, hitz hauexek aurre-
ratu zizkion:

- Kriadurik behar duzue?

Nagusiak, zerbait harriturik,
nongoa zen galdetru zion. Ni,
"Lazpiur Bolukoa", erantzun zuen.
Etxekoandrea ere, agertu zan ata-

*Denbora baietako
kriadutzak irizpide
aldakorrak zituen.
Kriadutza, morrointza,
mirabeak, beren izakera
ere, iritzi ezberdinetan
banatzen zen.*

*Bildu dudan
sortatxotik...*

BASERRIETAKO KRIADUTZA



Antonio Urzelai

rira, eta biak, aitortu zioten eza-
gutzen zituztela bere gurasoak.
Baita onartzen zutela kriadutarako
eskeintza. Bertan egin zituzten
urtebeterako konpromisuak eta
hurrengo egunetik, mutil gaztea,
"Labeaga" baserrian zeukaten.

Elosu auzoan esne asko zen
legez, inorako salmenta gabe,
egunero esnea jartzen zioten go-
saltzeko, beroa gainera. Goiz ba-
tean kexatu zen esanez:

- Esne hau beroa dago!

Etxekoandreak:

- Putz akiok.

Mutiko perkatxa eta langilea
zenez, auzoko baserriar bat joan
zitzaion "fitxatu" nahaian. "Le-
hengoekin, urteko konpromisoa
betetzen dudanian hitz egingo
dugu", erantzun zion. Hala, urtea
bukatzerakoan, hasi zen hizketan
nagusi berria izan zitekeenarekin.

Nagusiaren eskeintza: soldata,
mila erreal; jantzi, ohitzen zen be-
zala; mantendu eta Gabon saria.

- Ontzat hartzen ditut, soldata,
jantzi eta Gabon saria. Gauza bi
aldatu behar dituzu: Mantendu
esaten duzun tokian, ipini man-
tendu eta tripia bete, eta gosaltze-
ko duzuen esne beroa osteko,
ogitako eder bat alboan jarri.

Kontrajarrera bikaina, gazte
honek erakutsi zuena, urtebeteko
esperientzia jaso eta gero. Behon-
deikala!

**Berogailu, gas eta
iturgintza azterlanak**

Bainu diseinaketa

ZABETX
INSTALAZIOAK

Mahasterreka 14, Tfnoa: 76 54 14. BERGARA

Mujika
Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

GURIDI Altzariak

**Era guztietako
altzariak**

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

ALTZASU

Bergarako elkarterik haundiena

Bertako presidentea den Ignacio Azpeitiak kontatu zigun bezala, Altzasu 1964. eko Ekainaren 7an sortu zen lagun talde bat elkartu ondoren.

Bazkideak

Altzasu elkartearen 171 bazkide kuotadun eta 18 jubilatuta daude. 15 bat daude noiz sartuko zai. Altzasu da emakumeak bazkide bezala onartzen dituen elkarte gutxitako bat. Hemen 17 emakume daude.

Bazkideen artean adin guztietakoak daude. Nagusienak 70 urte inguru ditu eta gazteenak 30.

Bazkide guzti hauen artean ere badago sukaldean aritzen denik. Ignaciok Javier Mendizabal "Surra" eta Elias Lete aipatu zituen. Eta denetik gertatzen omen dute.

Nahiko jan eta edan ondoren, hilean 100.000 pza inguruko kaja egiten

dute kontsumoan. Ez dira makalak! Ignacio Azpeitiak zioenez, udaberri aldean jende gehiago ibiltzen da Altzasun. Dena dela, urtean zehar, orain lehen baino mugimendu gehiago somatzen dute.

Hala ere, jasotzen duten diruarekin, eta urtean 6.800 pztako hiru kuotekin ez da proiektuak betetzeko haina diru izaten. Azkenengo pisuan ezer ez dagoenez, zerbait jartzeko asmotan dabilta, baina momentuz asmotan gelditzen da dena. Elkar-tearen mantenimentuan diru asko joaten zaie. Ignaciok esan zuenez, "es-



kerrak jendea boluntate onarekin etortzen denari. Gaur ere piñuak sartzen dabilta". Altzasuko presidenteak aipamen berezi bat izan zuen obretan eta sukaldean aritzen den jendearen-tzat.

Diru kontutan jarrai-

tuz, urtean %3ko falta izaten dute batazbeste.

Elkar-tea urrun dagoenez, ezin izaten dute gauza denetan parte hartu. Baina Altzasuk hainbat gauza gertatzen ditu urtean zehar: urtean behin, hospitalekoei bazkaria, talde kulturaleri afari eta bazkariak...

Beraiek ere izaten dituzte beraien ospakizunak. Nahiz eta egun fijoak ez izan, urria edo azaroan izaten dira: gaztaina jana, martxa erregulatua, afaria...

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1964.eko ekainaren 7an.

BAZKIDEAK: 171.

HELBIDEA: Elusu auzoa.

PRESIDENTEA: Ignacio Azpeitia.

ELKARTEAREN EGUNA: ez da fijo.

URTEKO KUOTA: 20.400 pza.



- Fotokopiak koloretan
- Publizitate-dun kamisetak
- Oihal inprimaketak

AKORT
San Lorentzo, 7
behea. Tel. 76 50 39

PRiMi

- Mariskoak, arrain fresko eta izotuak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90
San Antonion Tfnoa: 76 21 08
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:
RAMON IRAEGUI

.....



Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA

ORDEZKARIA BERGARAN



VID-ART

Bidriera artistikoak

BIDRIERAK - MURALAK - ISPILUAK-KRISTAL BISELATUZKO ATEAK - etab.


Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk
egingo dizu.

BELANBIDE, Z/G - 20.570 BERGARA
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54


Udalaren baimena jaso ondoren, hastear daude Lanbide Heziketa Eskola berria eraikitzeko lanak. Datozen 22 hilabetetan burutuko dira obrak. Eraikuntza berria Matxiategi kalean kokatuko da, hain zuzen institutua eta ikastolaren

artearen dagoen lur sailean. Planoen arabera, eraikuntza moderno eta erabilgarria gerta daiteke. Ibargarai kaleko eskola ez da itxiko, eskola honetan klase praktikoak izango dira, eskola berrian klase teorikoak emango baitira.

Lanbide Heziketa Eskola berriaren obrak hastear



Ezkerreko planoan ikus daitezenez, eskola berriak saskibaloai pista, gimnasioa eta aparkalekuak izango ditu. Klaseak emateko 12 gela, liburutegia, areto nagusia, aldagelak, laborategia eta elbarrituentzako igogailua eraikiko dira. Edifizioak hiru solairu izango ditu: sotoa, beheko solairua (barne funtzionendurako beharrezkoak diren bulegoak: idazkaritzak, kontserjearen gela...), lehenengo solairua (klaseak emateko gelak eta laborategia), bigarren solairua (klase esperimentalak emateko gelak) eta hirugarren solairua (hasiera batean hutsik egongo bada ere, etorkizunean beharrezkoa izan ezkerreko gela berriak eraikitzeko). Beheko planoan, Lanbide Heziketa Eskola berriaren fatxada nagusia (Bonifacio Laskurain kalera begira). Argazkian, eskola eraikiko den lur-saila (institutua eta Aranzadi Ikastolako patioaren artean).



• 1994-95 ikasturterako prest egongo da eskola berria.

• Proiektuaren aurrekontua 500 milioi pzta.takoa da.

• Finantziazioa Eusko Jaurlaritzaren esku joan da, Bergarako Udalak lurra utzi du eta enpresa pribatu batek laster ekingo die obrei.

• Oraingo eskola ez da lagako, bertan klase teknikoak izango dira eta berrian klase teorikoak emango dira.

• Erreformarekin ikasle kopurua asko igo omen da, eta hurrengo urteetan modulo berriak sortuko direnez, honek ikasleen igoera ekarriko omen du.

Jose Mari Larrañaga

Begarako Lanbide Heziketa Eskolako zuzendaria

Jose Mari Larrañagak 46 urte ditu eta bi urte daramatza Lanbide Heziketa Eskolaren zuzendaritzan. Eskola berriaren eraikuntzari buruz hitz egin dugu berarekin, eta argi utzi digu eskola berriak bere asmo eta gogo guztiak betetzen dituela.



- Noizko egongo da eskola berria?

- Eskola berria egiteko proiektua onartua dago, Eusko Jaurlaritzak eman du baietza eta obrak egiteko eraikuntza enpresa bat kontratatua dago. Enpresa honek abendutik hasita 22 hila-bete ditu eskola berria egiteko.

- Oraingo eskolak ze arazo ditu?

- Eskola jendez gainezka dago, mugitzeko

lekurik ere ez daukagu.

- Orduan betiko eraikuntza itxi egingo duzue?

- Ez, hemen tailerrak eta praktikak egiteko tresneria mantenduko ditugu, eta eskola berria klase teorikoak emateko erabiliko dugu. Gu orain I.E.E.(REM)ko klaseak hasi gara ematen eta honek ikasketa programa berriak egitera behartzen gaitu, esaterako ikasleek gimnasia egitera kirolde-

gira joan behar dute eta orain eskola berriarekin arazo hau konponduta daukagu.

- Ikasle kopurua handitzeak bakarrik bultzatu du eskola berria egitea?

- Hori garrantzitsua izan da, baina azken urteetan hezkuntza sistema erabat aldatu da eta honek eskatzen dituen beharrei erantzuteko ezinbestekoa zen eskola berria egitea.

"Eskola jendez gainezka dago, mugitzeko lekurik ere ez daukagu"

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE



Appéniz

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteletako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**TOKI-EDER
Taberna**

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**Sagardotegietara joateko
ohiturarik ba al duzu?**



Marisol Gonzalez
21 urte, administratiboa

Ez, ez dugu ohiturarik. Inoiz ez naiz egon eta aurten ere ez dut uste joango naizenik.



Jesus Mari Zabaleta
40 urte, langilea

Lehen soldaduzka egin nuenean bai, gertu genuen eta. Baina orain oso gutxi.




Migel Anjel Unamuno
32 urte, langilea

Noizean behin baina oso gutxi. Kotxea mugitu beharra dago eta... Bestela oso gustora.



Paqui Hurtado
42 urte, etxeakoandra

Bai. Joaten gara, bai. Asko gustatzen zaigu baina ez gaituzte nahi beste alditan eramaten...




IKASLEA LAGUNTZEKO EKIPOA

- O. H. O.
- B. B. B.
- U. B. I.
- I. E. E. (R. E. M.)
- L. H. I - II
- EUSKARA
- SARRERA KURTSOAK
- MEKANOGRAFIA

**TALDE TXIKIAK
EUSKARA - GAZTELERA**

Informazio gehiago:
☎ 76 52 61 - 76 23 60



Hauteskundeak

Lehengo larunbatean, urtarrilak 16, Donostian ospatu zen, Euskadiko Txirringularitza Federazioaren ezohizko batzar orokorrean, datozen lau urteetarako presidentearen hautaketa.

Jaime Ugarte lehendakari zuela aurkeztutako taldeak atera zuen Federazio hori zuzentzeko eskubidea, ehun boto emale posibleetatik, larogeita hamairuk eman zuten botoa, 64 Jaime Ugarterentzat, 27 Txutxi Izkararentzat eta 2 zuri.

Salatu behar euskarari emandako tratua, nahiz batek nahiz besteak ez zuen hitz bat ere euskeraz egin, ez kanpainen zehar eta ez hauteskunde egunean.

Jaime Ugarte orain arte lehendakari zen eta egindako lanean eta ildo horretan jarraitzeko asmoak dituela esanez oinarritu zuen kanpaina.

Bestalde, labor bada ere, Euskadi Fundazioa ere aipatu nahi dut. Afizionatu mailatik profesionalera pasatzeko talderik ez, eta maila dutela erakusten duten euskal txirringulariarentzat, irtenbide bezala pentsatu da fundazio hau, laguntza eman nahi dutenak, Euskal Federaziora edo herriko txirringulari taldera jo.

Jesus Kortabarria "Kaxeta"



Sadamek ordago Bushi

Iraken aurkako erasoak justifikatu eta Israelen aurkako erabakia ahaztean ONUko Segurtasun Batzordeak argi utzi du berriz ere bere moral bikoitza. "Nazio Batuak" deitutako horren kontrola Estatu Batuen eta bere lagunen esku dagoela demostratu da. Sadam Husseinek arabiarren profeta berria izateaz egiten du amets baina hasiera-hasieratik huts egin zuen, izan ere, nori bururatu dakioke Kuwaitek bezala petrolioia duen herri bat hartuta gainontzekoak geldi egongo direnik? Huts nabarmena egin zuen lehen aldi hartan eta ondotxo ordaindu behar izan zuen eta orain berriz George Bush bere arerio politikoari ordago haundira jo dio bateko pareta baino ez duela.

Bushek, hanka bat Etxe Zuritik kanpo zuela, 3 erregekin eskuak igurtzen jardun du. Hauteskundeetan porrota izan du baina beligerantzia errepublikarra erakutsiz, eta gainera bere ondorengoari egiteko zaila jarri dio nazioarte mailan: Bill Clinton ate haunditik sartu da baina hortxe du zezen adarka egiteko prest dagoena.

Golko bigarren gerla honek, USARI bere teknologia erakustaldia egiteko balio izan dio, alde batetik, baina, bestaldetik, aliatuak horren aliatu ez izateko ere balio izan du, zeren eta Europako nazio txikiek gorrarena egin bait dute, errusiarrek bi barajekin jokatzeko dute eta arabiarrek Israelen palestinarren deportatzen dituela gogorarazi dute. Sadam oker dabil beti baina Nazioarteko Alientza Santua hankaz gora bota du.

Juan Antonio Migura

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zublaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN
BANATZAILE BAKARRA

Erreformengatik,
% 50eko
deskontuak

Arane Erreka, 4 ☎ 76 30 57

Beheko Taberna

*Menestra eta konejua
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

**Bazkariak
eta
afariak**

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR



□ San Antonabat

Astebukaeran jende pila bat bildu zen San Anton auzoan bertako jaiak ospatzeko, eguraldiak ere lagundu zuelarik dena primeran joateko. Larunbatean jokaturako karta txapelketan 30 bikotek hartu zuten parte eta Zumarragako Sanchez anaiak musean eta Zigarreta eta Jauregi tutean izan genituen irabazleak. Igandean, berriz, Nazioarteko Krossaren edizio berri bat jokatu zen, nahiz eta aurten ere, agian beldurrez hemengo maila ikusita, etiope edota Keniako korrikalaririk ez azaldu. 40 lagun izan ziren irteeran eta Pedro Zalama arrasatearrak irabazi zuen, Iñaki San Martin (Elgoibar) eta Galanen (Arrasate) aurretik. Lehen bergararra Anselmo Lopez izan genuen 7. postua. Emakumezkoetan Amaia Mazurriaga elorriotarrak irabazi zuen eta Pili Barandiaran bergararra hirugarren izan zen.



IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

MUGICA

Goxotegia



Artekale, 3
☎ 76 10 34

**pastelak,
errellenoak,
tostoiak,
tartak...**



□ **Beira lanketari buruzko ikastaroa**

Asteartean zabaldu zen Kultur Etxean, Heziketa Okupazionalaren barne, **beira-lanketari buruzko ikastaroan** parte hartu duten 10 gazteren erakusketa. Beira zatia hartu, biselatu, tailatu eta aluminiozko perfil batzuen tartean kokatu dute ikasle hauek **Felix Urrezolaren** zuzendaritzapean eta horren ondorio bezala ate eta leihoetako apainketa lan bikainak ikus ditzakegu Kultur Etxeko erakusgelan igandera arte, hilak 24. Ez galdu aukera!!



□ **San Sebastian eguna**

Sarriegik konposatutako *San Sebastian Martxaren* akordeak entzun ahal izan genituen asteazkenean, San Sebastian egunean. Azken urteotako ohiturari jarraituz, Bergarako hainbat ikastetxetako haurrak (argazkian Aranzadi Ikastolakoak Seminarioan) jo ta ke aritu ziren danborrak jotzen eta norbaiten siesta ere etengo zuten. Esan bezala, jai giroa nagusi eta gaztetxoak tanborrada egunero egiteko prest. Bejoindegula!!


*Zertan
dihardute
ba?*

KONTXI BASTERRA



Lanbide Heziketa Eskolan ikasketak burutu eta IMI gelako monitore 4 urte t'erdi eman dituen 31 urteko bergarar honek delineante lanpostua eskuratu du Udaleko Bulego Teknikoan.

JOSEBA AIZPURUA



Iruñean eta Zaragozan Nekazal Injenieriari Tekniko ikasketak burutu dituen 27 urteko debar honek Udalak lehiaketa oposiziora kaleratutako perito agronomo lanpostua eskuratu du.

anezka

Udazkenerako oihalak
eta lenzeria

% 30eko deskontuak

Espolola 8, Tfnoa: 76 59 25

Izarra
elektragarintza

Carmelo Aranguren Unamuno

Tailerra: Zubieta 10 behea
BERGARA ☎ 76 54 10
Etxea: ☎ 76 19 99 / 76 10 60

Zatoia
Boutique

BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

Umore giroan

Errore bi ez!

Plaentxiar bati, kinzenia kobratzerakuan, 2.000 pezeta geixago emon zetsezen. Konturatu zan be-
ra, baiña ixilik! Ugezaba be kontu-
ratu zanian pentsau zeban urrengo
kinzenan 2.000 peseta gitxiago
emotia. Ta olan egin zeban. Gure
plaentxiarrari, baiña, denporia fal-
tau jakon erreklamatzera juateko.
Ugezabak esan zetsan:

- I, baiña, aurreko kinzenan
errore bat euki genduan...

Orduan plaentxiarrak:

- Bueno, errore bat pasau leike,
baiñan bi ezitxut konsentzitzen!

Kukaratxan aurkako autsak

"Morenito" k kukaratxak iltzeko
autsak saltzen zebazen. Bai andra
askok erosi be. Kukaratxak, bai-
ñan, ez ziran iltzen. Juan ziran
protestatzera saltzailliangan, eta
onek esan zetsen:

- Ah! zuek ezteztazue ondo ai-
txu. Eññ biar dozuena da, lenengo
autsa bota kukaratxan gaiñera, eta
gero kukaratxak zapaldu.

Pedro Zelaia

*Argazkian ikus dezakegu Jose
Maria Marquina, 30 urtez
(1943-1973) San Antonioko
gasolindegian lanean jardun zuena.*

*Jose Maria, orain dela 12 urte hil
zen kotxe batek harrapatu eta gero.*

*1943eko uztailaren 7an, San
Fermin egunean, hartu zuen San
Antonioko gasolindegia ardura.
Aurretik, Laureano Azkargortak
jardun zuen.*

*Erretratua, 1945 urte ingurukoa da
eta gasolina hartzen dagoen kotxea,
ostera, Jose Mari Aseginolazarena
da, Bergarako Renault autoetxeko
jabearen aitarena.*



ORAIN DELA...

Agur San Antonioko gasolindegia

la 37 urte bete ondoren atzo,
hilak 20, desagertu zen betirako San
Antonioko gasolindegia.

Jose Maria Marquina, "gasoli-
nas" edo "gasolinero" ezizenez
ezagunagoa dena, gizon zintzo eta
arretatsua, izan da atzo arte berga-
rrok hainbat aldiz erabili izan du-
gun "iturri" horretako arduraduna.

OHARRA: Aurretik 1936ra arte
gasolindegia San Pedron egon zen.

**La Voz. J. L. Bikuña.
1973-1-21.**

FEVEk trenbideari eustea onartu du

FEVEko (Ferrocarriles de Via
Estrecha) zuzendaritzak onartu egin
du Mekolaldetik Eskoriatzarako eta
San Prudentziotik Oñatirako trenbi-
de-zatiei eustea.

Zonako udalek eta hainbat enti-
dade partikularrek trenbide-zati ho-
riek (trenbide, semaforo, etab.ak)
goitik behera konpontzeko konpro-
misua azaldu dute, eta, era berean,
trenaren esplotaziorako elkarte
merkantil bat sortzeko prest agertu
dira.

**La Voz. J. L. Bikuña.
1968-1-19.**

J a t e t x e a

J u b i l a t u e n

Taberna

MENUA 750 pezeta

AFARIAK

**Kuadrilentzako aproposak
Prezio onean**

KAZUELATXOAK

☎ 76 62 71

ANTZUOLA

**ileapaindegia
eder gela**

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55



LIZAR

Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezibar



Elena Ezenarro

Elena Ezenarrok jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. Orain dela bi asteko argazkian agertzen ziren bi pertsonai ospetsuen izenak **Don Pedro Garitano** eta **Simon Arrieta** ziren. Obren egileak, ostera, **Miguel Okina** eta **Lorenzo Askasibar**. **10.000 pzta.**ko saria eskuratu du Elenak. ZORIONAK berari eta ea besteek suerte hobea duzuen aste honetako BONOFOTOAn!!

Zein da jauregi honen izena eta Bergarako harmarriaren zein elementu dira etxe honetakoak?


Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Aste honetako saria : **10.000 pzta.**

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

BERGARA
UDAL



EUSKALTEGIA

BIDEKURUTZETA, 27
TEL. 76 44 53

**EUSKALDUNTZE
eta ALFABETATZE
taldeetan hutsik
dauden plazak
betetzeko deialdia.**

IZENEMATEA

Bidekurutzeta, 27 2.a
☎ 76 44 53

EPEA

Urtarrilak
20 - 28

ORDUTEGIA

14.30 - 18.30

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, ZUBIZARRETA,
ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN GABE!!**

Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

Dirulaguntzak

Udal Kirol Zerbitzuak otsailaren 15ra arte jasoko ditu kirol taldeen proposamenak aurtengo subentzio ekonomikoa jaso ahal izateko. Bestalde, bertan behera utzi dira kirol talde bakoitzarekin izan behar ziren bilerak.

Lokatza

Lokatza Ziklismo Eskolak dei egiten die lizentzia berri nahi duten guztiei datorren ostegunean, hilak 28, arratsaldeko 7 terdietatik 9etara bitartean Lokatzako lokaletik pasatzeko. Argazki bat eraman beharko da eta 18 urtetik beherakoak aita edo amarekin joateko eskatzen da.

"Txiki" Oyarzabal: "Suerteak laguntzen badigu mailaz igo dezakegu"

Jose Ignacio Oyarzabal "Txiki", B. K. Elkarteko saskibaloi saileko arduradun teknikoa dugu. 30 urte ditu eta 12 urterekin hasi zen saskibaloian. Azken 12ak entrenatzaile lanetan jardun du. Saskibaloi talde nagusia burutzen ari den denboraldi bikainaren inguruan berrikeran ihardun dugu berarekin.



- Txapelketako lehen zatia amaitzear dago eta hirugarren sailkatuta zaudete...

- Bai, hiru partidu geratzen zaizkigu lehen fasea bukatzeko eta dagoeneneko sailkatuta gaude bigarren fasea jokatzeko. Gure taldean lehenengo bost postuetan geratzen

garenok eta beste taldeko bost lehenengoen mailaz igotzeko liga jokatu dugu.

- Eta bigarren mailara igotzeko aukerarik baduzue?

- Zaila da, baina suerteak laguntzen badigu, igo dezakegu. Egiten ari garen jokua kontutan izanda, fin ibili beharko dira arerioak gure aurretik sailkatu nahi badute.

- Igo ezker, fitxaketak egingo al zenukete?

- Ez, ez, ez. Gure filosofia bertakoekin jokatzea da. Direnak direla, datorren urtean jokalaria batzuk soldaduzkara joan beharko dira eta ez dakit nola ibiliko garen.

- Nola definituko zenuke zure taldea?


- Postu batzuetan jende altua daukagu eta horrek gure alde jokatzen du. Teknikoki gu baino talde hobea badaude, baina gogor egiten dugu borroka, jarri behar dena jarriaz eta partiduak arerrera ateratzen ditugu.

- Jendearen erantzuna nolakoa izan da?

- Aurten jende asko etortzen da kiroldegira. Maila haundiko taldeak etortzen dira eta gu ere bikain jokatzen ari gara. Gustora pasatzen dute.

Mendiko bizikletak

San Paulo jaiak direla eta, II. Mendiko Bizikleten Lasterketa jokatu da larunbatean Uberan. Lau maila zberdin izango dira: absolutoak, jubenilak, beteranoak eta emakumezkoak. Sariei dagokienez, berriz, 25.000 pzta., txapela eta trofeoa jasoko du absolutoetan lehenengo sailkatzen denak, 8.000 pzta. eta trofeoa jubenil mailako onenak, eta 8.000 pzta. beteranoen eta emakumezkoen mailetan irabazle geratzen direnek. Lasterketa 15.30etan hasiko da eta izen emateak bertan egin ahal izango dira 14.00etatik 15.00etara bitartean.



GAZTELU
Burdinaki denda

MIntegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

BOLINTXO

Kirala eziteko behar den guztia

lbargarai 10,
☎ 76 38 32




Sagarpe elkartearen zilarrezko eztaiak

Aste honetan "Bergarako elkarteak" atalean Sagarpe elkarteari eskeini diogu orrialdea. Hori dela eta, Erretratu Zaharrean ere Sagarpe sortu zeneko 25. urtea bete zen egunean ateratako argazkia azaltzen dugu. 1.968ko erretratuan, elkarteko bazkide guztiak agertzen dira, tartean aulki batean jarrita agertzen den Bonifacio Laskurain txistularia, elkarteko Ohorezko Bazkidea. Honako hauek dituzue guztien izenak:

1. ilaran: Jose M. Uribesalgo, Victoriano Gallastegi, Bonifacio Laskurain, Alberto Lonbide, Jose Gorrotxategi eta Juan M. Aspiazu.

2. ilaran: Cecilio Garitano, Julian Elkoroberezibar, Felipe Gallastegi, Jose Iturbe, Pedro Narbaiza, Imanol Aspiazu, Juan Etxaniz, Evaristo Mazorriaga, Juan Jose Arrieta, Juan Larrañaga, German Balanzategi, Ignacio Arriola, Jose Altuna, Felix Onaindia, Julio Retegi, Jose Gonzalez, Luis Mari Ugarte, Jose Kalboetxeaga, Dionisio Bolibar, Martin Guridi, Felix Bilbao, Doroteo Beiztegi eta Pedro Romaratezabala.

Estepan Plazaola



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3 Ibargarai 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

ETXEBIZITZA

Ganbarak hustu eta garbitzen ditugu. ☎ 76 82 17.

Neska bat behar da Donostian pisua konpartitzeko. ☎ 76 19 299.

Bergaran herriaren erdialdean ileapaindegia alokatzen da. ☎ 76 16 17.

HarrizurIn garajea salgai. ☎ 74 30 55/ 74 43 19

Jacan etxe bat alokatzen da. ☎ 73 07 60. Begoña. (gauzez).

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Santa MarInan. ☎ 76 32 70.

Garajea salgai Martokuan. Erosoa. ☎ 76 46 95.

Pisu amueblatua alokatzen da Bergara erdian. ☎ 12 12 71.

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisua salgai Artzamendin muebleekin edo mueble gabe. ☎ 76 40 82 (6etatik aurrera).

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauzez).

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Garajea salgai Torre-kuan. ☎ 76 16 51.

Zurraderon garajea alokatzen da. ☎ 76 23 27.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

SALDU-EROSI

Kotxea salgai. SS-P. 75.000pzta. ☎ 76 53 59.

Skiko botak erosiko nituzke. 38 zenbakikoak. ☎ 76 18 78 (Maite).

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

SS-4252-P matrikuladun Ford Scort 1.600 kotxea salgai. ☎ 76 50 18.

Skiko Koflach-Valuga botak erosiko nituzke. ☎ 76 05 92 (Jose Angel).

Ileapaindegi eta estetika aparailuak salgai. Egoera onean. ☎ 76 32 12.

Kanowey moto bat salgai (49.9 zM3). Egoera onean (90.000 pta.). ☎ 76 12 99.

Etxeko gela bikoitz bateko altzarIak salgai. Egoera onean. ☎ 76 18 61.

3 metro luzeerako mahala salgai. ☎ 76 06 97.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

Garbigailua oparitzen dut. ☎ 76 03 73.

Lau MSX joku salgai. ☎ 76 59 47 (David).

Peugeot 205 XL bat salgai. 6 urte SS-W. ☎ (945) 27 92 73 (arratsaldez) / 76 05 23 (gauzez).

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Software dun 2.400 BPS modema salgai. Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

LANA

Etxeko lanak egin edota denda baten lan egingo nuke. ☎ 75 24 47.

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 07 26 (Amaia).

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke. ☎ 76 60 65.

Hildakoak

Vicenta Garitaonandia
urtarrilak 14, 85 urte

Alejandro Garmendia Iriarte
urtarrilak 15, 74 urte

Julia Orueta Lizarralde
urtarrilak 15, 70 urte

Josefa Gonzalez Jimenez
urtarrilak 17, 83 urte

Maria Blanca Ruiz de Eguino Lazpiur
urtarrilak 19, 50 urte

Jaiotakoak

Idoia Madinabettia Dominguez
abendua 27

Aitana Ugarte Molina
urtarrilak 12

Aitzol Gutierrez Beitialarrangoitia
urtarrilak 13

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

TOKI-ONA


Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak / Teiteijotzak
Kazalatzak / Txabierrak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

GURPIL GAINEKO ERAGINKORTASUNA

Guipuzcoanan, gure lehen helburua zerbitzu oso eta eraginkorra eskaintzea da.



Horretarako garraio sare logistiko arin eta dinamikoa daukagu enpresen eskuetan.



Antolakuntza osoa, bere 57 ordezkartzen bidez estatu mailako hedapena duena.



Egunez egun enpresa lanetan agintzen diren beharrei erantzuteko.



Gure eraginkortasuna gurpil gainean ibil dadin.

EGAÑABERRI
E. M.

SAN JUAN AUZOA, Z/G
☎ 76 36 42
20570 BERGARA



GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa